


RASFF-EKO ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK – 1. LAUHILEKOA

2005. urteko lehen lauhilekoan, Europako Informazio Azkarreko Sistemak (RASFF) guztira 949 alerten eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien portzentajeak hurrengoak dira:

Kutsadura-iturria	Portzentajea
Mikotoxinak / biotoxinak	%42
Kutsadura kimikoa	%29
Kutsadura biologikoa	%20
Metal astunak	%6
Pestiziden hondakinak	%3




Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasuen **%91n**, kutsadura **AFLATOXINEk** eragin dute eta, horrelakoetan, **PISTATXOAK** kutsaduren %60 eragin du. Bestalde, kasuen **% 98an** pistatxoak **IRANetik** zetozen. Bigarren produktu garrantzitsua **KAKAHUETEa** da. Honek afltoxinek eragindako kutsaduren **%23** eragin ditu, eta **TXINA** izan da jatorrizko herrialdea kasuen **%45ean**.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren **% 50 eragin ditu**: Kutsaduren **% 35 hegaztien** artean eta **%22 txerrikian**. Kasu bietan, eta produktu bietarako **Europa** izan da jatorrizko herrialdea kasuen **% 75ean eta %100ean**, hurrenez hurren. **Listeria monocytogenesek** kutsaduren **%12** eragin ditu; eta gehienetan txerria eta izokin ketua izan dira eragile nagusiak.

Kutsadura kimikoari dagokionez, kasuen **%50ean Koloragarriak** izan dira eragile nagusiak, **Sudán 1** eta **Sudán 4** hain zuzen, kasuen **%75ean** errudunak izanik eta **Sulfitoak** kutsadura kimikoen **%14an**.

Mikotoxinak	398	Aflatoxinak	372 (91 %)	pistatxoak	224 (60 %)	Iran	200 (98%)		
				kakahueteak	86 (23 %)	Txina	39 (45 %)		
						Argentina	14 (16 %)		
Kutsadura biologikoa	187	<i>Salmonella sp.</i>	93 (50 %)	hegaztiak	33 (35 %)	Europa	25 (75 %)		
						Amerika	7 (20 %)		
				txerria	20 (22 %)	Europa	20 (100 %)		
				<i>Listeria monocytogenes</i>	23 (12 %)	txerria	10 (44 %)	Europa	10 (100 %)
						izokina	6 (26 %)	Europa	6 (100 %)
Kutsadura kimikoa	271	Koloragarriak	134 (50 %)						
				Sudán kolorea	99 (75 %)	espeziak	43 (44 %)	Asia	28 (65 %)
								Europa	15 (35 %)
						palma olioa fruta	33 (34 %)	Afrika	33 (100 %)
				Sulfitoak	37 (14 %)	lehorrak	19 (52 %)	Turkia	11 (58 %)
		ganbak	11 (30 %)	Frantzia	6 (55 %)				

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdea hurrengoa izan zen:



Asiari dagokionez, kutsaduren % **48k** **Iranen** izan zuten jatorria, ondoren **Indian** % **16k**, eta, azkenik, **Txinan** % **13k** hurrenez hurren. **Europari** dagokionez jakinarazpen gehien eragin zituzten herrialdeen artean **Espainia** izan zen lehenengoa (%**16**) eta ondoren **Frantzia** (%**11**). Eta azkenik Afrika kontinentearen barruan bi nabarmen du ziren: **Ghana** (jakinarazpenen % **35**) eta **Nigeria** (%**17**).

Azkenik, Europako Erkidegoaren barruko jakinarazpenen portzentajea hurrengoa izan zen:

